



Bilboko  
Elizbarrutia  
DIÓCESIS DE BILBAO

**GURE AITA**

**A SAIOA**

**HAURREN KATEKESIA PARROKIAN**

Delegación de Anuncio y Catequesis  
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza



## 1. Helburua

- Jainkoa, maite gaituen eta Berarekin hartu-emanaz izateko bidea erakusten digun Aita bezala ikusi, Jesusen bidez.

## 2. Helburu Bereziak

- Jesusek Jainko Aitarekin duen konfiantzazko hartu-eman estuaz jabetu.
- Otoitzak Jesusentzat duen garrantzia ezagutu.
- Aitagurearekin otoitz egiten ikasi.
- Jainkoa denok maitatu eta zaindu egiten gaituen Aita dela jakin eta horren aurrean esker oneko agertu.
- Gure Aita kristau guztiok batzen gaituen otoitza dela jakin.

## 3. Saioak

- A saioa, hurren katekesia parrobian.

## 4. Aurkituko Duzuna

- Motibazioa: ideia nagusiak.
- Jainkoaren Hitzak, txatala.
- Abestia / ipuina / bideoa.
- Saioaren garapenerako jarduerak eta azalpen zehatza.
- Bilketa eta laburpena egiteko proposamena.
- Ezinbesteko lagungarriak.

# A SAIOA HAURREN KATEKESIA PARROKIAN



## Motibazioa

- Jesusi esker, Jainkoa pertsona guztien Aita dela dakigu.



## Azpimarrak

- Jainkoak hurbil egon nahi du eta Berarekin hartu-emanan izateko bidea eskaintzen digu.
- Otoitzak dena lotzen du eta pertsona guztiok lotzen gaitu.



## Idea nagusiak


- Saioaren ardatz den kontaktetan, Jesusek otoitz bat irakasten digu: Lukas 11, 1-4.
- Aitagureak batu egiten gaitu, aita, ama eta seme-alabok Aita bera dugu.
- Jainkoa maite gaituen, gutaz arduratzen den eta gure berri izan nahi duen Aita on bezala sentitzen dugu.
- Aitagurea errezatuz, Jainkoarekin hitz egiten ikasten dugu.



## Saioaren garapena begi-kolpe batean

### Jainkoaren Hitzak, txatal argitzailea


"Jauna, irakats iezaguzu otoitz egiten".



"Tu Primera Biblia", Edebe, 392 - 393 or.

### Bideoa

Abesteko,  
klik irudian



[https://youtu.be/J2Tau9gAN\\_c](https://youtu.be/J2Tau9gAN_c)  
"Padrenuestro", Guambra Zucarena.

### Jarduera, "Jainkoaren WiFia?"

- WiFia



### Bilketa eta laburpena egiteko proposamena

- Sinboloak: kandela, gurutzearen seinalea egin eta otoitza banatu. Otoitz laburra, Gure Aita.
- Gure Aita banatu familia Eukaristian.



## Ezinbesteko lagungarriak

- I. kartela. "Jainkoaren WiFia". (I. Eranskina)
- Gure Aita otoitzaren atalen irudien kopiak (II. Eranskina)

Denbora hartu saioaren dinamika ulertzeko eta behar izango dugun guztia alde zuzenetik prestatzeko.



## Saiorako gida

### Katekistarentzat...

Katekesiko gela girotzeko eta saioari hasiera emateko, katekistak prest izango du kartulina batean guztiok besarkatzen gaituen Jainkoaren WiFiaren posterra (I. eranskina), sareko pasahitzarekin: "AITAGUREA".

Saioa lau unetan banatuko dugu:

- 1. unea: agurra eta aurkezpena (10 minutu). 1-3 urratsak.
- 2. unea: gaiaren azalpena (10 minutu). 4. urratsa.
- 3. unea: jarduera. Bideo-abestia (25 minutu). 5-6 urratsak.
- 4. unea: adierazpena eta laburpena (otoitza eta ikasi dut) (15 minutu). 7-8 urratsak.



### Lehen unea. Agurra eta aurkezpena

Katekistak, hasieran, agurtu eta ongi etorria adieraziko die Gabon aldiaren ostean.



1. Urratsa. Saio honetan Jainkoaren WiFia ezagutuko dugula esango die katekistak hurrei. Ondoren, galdera hauek egingo dizkie:

- Badakizue zer den WiFia?
- Non dago etxean?
- Zertarako balio du?



2. Urratsa. Katekistak Jainko Aitaren irudia, konexioa eta pasahitza jasotzen dituen kartela erakutsiko dio taldeari. Kartelean agertzen denaz, esanahiaz, esan nahi digunaz... hizketan jardungo dugu.



3. Urratsa. Eta gu... nola jar gaitezke Jainkoarekin hartu-emanen? Non egin dezakegu? Zein da konexioa?




### Bigarren unea. Gaiaren azalpena




4. Urratsa. Katekistak Gure Aita oroitzaren 10 irudiak (II. Eranskina) lurzoruan edo mahaian nahasita jarriko ditu. Kartazal txiki batean pieza guztiak bana ditzakegu partaideen artean.


- Irudi bakoitzean arreta jartzeko esango die katekistak hurrei.
- Ondoren, Gure Aita otoitza entzuten duten bitartean, ordenan jartzen saiatuko dira. Nahi izanez gero, "Tu primera Biblia" delakoaz baliatuz (49. zenb., 392-393 or.) irakur dezakegu otoitza edo taldean esan.
- Amaitu ondoren, irudiei zenbakiak jarri, nahi bada margotu eta mural batean edo zatar-paperean ordenan jarri eta gelako horman itsatsi.

## **Hirugarren unea: "Jainkoaren WiFia" jarduera**


 5. Urratsa. Katekistak horman jarri duten kartelera begiratzeko esango die. Ondoren, irudi bakoitzean zer agertzen den ikusi eta horrekin otoitz egiten lagunduko die.

 6. Urratsa. Guamba Zuca taldearen "Padre Nuestro" abestia entzun eta leloa errepikatuko dugu.


**Abesteko,  
klik egin irudian**



## **Laugarren unea: Bilketa eta laburpena**

 7. Urratsa. Saioari amaiera emateko:

- Kandela piztuko dugu, Jesus gure artean dela adierazteko. Jesusekiko konexioa irekiko dugu, "gure rutterra piztuko dugu".
- Amaitzeko eta saioan landutakoa jasotzeko, galdera batzuk egingo dizkiegu:
  - Zer egin dugu?
  - Zer sentitu dugu?
  - Zer ikasi dugu gaur?
- Isilunea egingo dugu... gurutzearen seinalea egingo dugu (ikasi dute, baina, badaezpada, nola egiten den gogoratuko diegu)
- Muralaz baliatuz, Gure Aita errezatuko dugu elkarrekin.

 8. Urratsa. "Gure Aita banatu". Familia Eukaristian, Gure Aita otoitza banatuko diegu. Salbuespenez, Eukaristian banatu ezin bada, katekistak haur bakoitzari emango dio Gure Aita otoitzaren kopia plastifikatua etxera eraman dezan. (III Eranskina)

I. ERANSKINA

AITAGUREA

pasahitza



# II. ERANSKINA



### III ERANSKINA

# GURE AITA



**zeruetan zarana**



**ABBA**

**santu izan bedi zure izena**

**etor bedi zure errinua**



**egin bedi zure nahia**

**zeruan bezala lurrean ere.**



**Emoiguzu, gaur, egunetako ogia**



**parkatu gure zorrak geuk ere gure**

**zordunei parkatzen deutsegun ezkeru**

**ez iezaguzu utzi tentazioan jausten**



**eta atera gagizuz  
gaitzetik**



**AMEN**